

{Almidoia}

Arabako landetako altxorra

Patataren osagaia nagusia ura da (%80), eta, ondorioz, kaloria gutxiko produktua da. Almidoi (karbohidratoak) askoko elikagaia ere bada patata, baina ez du balio arroza, pasta edo lekak ordezkatzeko. Tuberkulu honek ez du proteina askorik, zuntz gutxiko elikagaia da eta gantzik ere ez du. Baina potasioz ongi hornituta dago, eta magnesio kopuruan ere beste barazki batzuen pare da. Gainera, landatu den lurra mineraletan aberatsa baldin bada, fosforoa, kloroa eta burdina ere emango ditu.



Erakundeek eta enpresek bat egin dute Arabako patata sustatzeko.
Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS
GAUR8

na baino gehiago. Zehazki, Euskal Baserri ziurtagiridun patatzen erosketa %25 hazi zen, eta, Eusko Label patatena, %10.

SALMENTA IGOERA

«Ziurtagiridun gero eta Arabako patata gehiago saltzen da egun Euskal Autonomia Erkidegoko Eroskiren sare komertzialean. Beste zenbait produktuekin egin bezala, kooperatiba Arabako patata ekoizpena bultzatzen ari da, tokiko ekonomia indartzeko luzera begirako hitzarmenak eta akordioak sinatuz elikagai ekoizleekin», azaldu zuen pasa den astean Gasteizen egin dako agerraldian Asun Bastidak, Eroskiren tokiko produktuetarako zuzendari komertzialak.

Udaparekin lan egiten duten nekazariak urtero 7.000 tona patata ekoizten dituzte. Azken urteotan, gainera, %60 igo da Eusko Label eta Euskal Baserri zigitudun patatzen kopurua

Gasteizko Gobernuak eta Eroskik akordio bat sinatu zuten 2013an tokiko elikagaien industria indartzeko. Arabako patata bera ere egitasmo horren onurak jasotzen ari da

Aurten, Eroski eta Udapak kanpaina berezi bat jarriko dute abian Arabako patataren sasoia-ekin bat eginez, eta apirilera arte iraungo du. «Helburua da produktu autoktono honen bikaintasunari balioa ematea eta haren kontsumoa sustatzea elikadura osasungarriagoaren oinarri gisa. Euskal Baserri eta Eusko Label zigitudun Arabako patata kalitateagatik bereizten da. Eta Eroskik kalitate goreneko janari freskoak eskaini nahi dizkio kontsumitzaileari», nabarmendu zuen agerraldian Ugaitz Lana Gasteizko Eroski Boulevard hipermerkatuko kudeatzaileak.

Koldo Lopez Roblese, Udapako kalitate zuzendariak, txalotu egin zituen Eroskiko ordezkarien hitzak. «Eskertzen diogu Eroskiri tokiko produktuen alde hain sendo egitea eta horrelako konpromisoz aritzea hemengo nekazaritza elikagaien sektorearen etorkizunaren alde. Eusko Label eta Euskal Baserri ziurtagiridun patataren ekoizpenaren erdia baino gehiago Eroskik erosten digu», ohartarazi zuen.

Kanpaina Lakuak eta Eroskik sinatutako akordio baten emaitza da. Hitzarmenak tokiko nekazaritzako elikagaien industria

bere aniztasun osoan indartzea du helburu; eta lankidetzarako konpromisoa jasotzen da, bai bertako lehengaiei balio erantsia emango dieten produktu berriak merkaturatzeko, bai eta EAEko nekazaritza elikagaien sektoreko enpresa traktoreei laguntzeko. Gasteizko Gobernuaren arabera, hitzarmen honen bidez, «landa garapeneko laborantza, abeltzaintza eta jarduera tradizionalak berreskuratu nahi dira; hala, produktu horiek Eroskiren dendetan merkaturatzeko konpromisoa hartuko da, ingurunean aberastasuna sortzeko eta lanpostuak berreskuratzen laguntzeko».

Lanpostuei dagokionez, aurten Udapan lau ekoizle berriekin lanean ari direla azpimarratu behar da. Igoera ezohikoa da, izan ere, nekazari ugari erremolatxa landatzearen alde egiten ari dira azken urteotan. «Patatak lan gehiago eskatzen du, eta, ondorioz, nekazari askok lan mekanizatu gehiagoko produktuak landatzearen alde egin dute», azaldu du Saenz de Camarak. Arazoak arazo, Eroski eta erakundeek laguntzekin Arabako patata etorkizuneko produktua izatea espero dugu.



SASOIKOA

ARABAKO PATATA